Aizoáin
Aitzoain

Añézcar
Añezkar

Artica
Artika

Ballariain

Berrioplano
Berriobeiti

Berriosuso
Berriogoiti

Elcarte
Elkarte

Larragueta
Larrageta

Loza
Lotza

Oteiza
Oteitza

# BERRIO PLANO INFORMA

# BERRIO BEITIko AHOTSA

70

Abendua 2023 / 2023 Diciembre

Boletín de información municipal del Ayuntamiento de Berrioplano

Berriobeitiko udalaren informazio aldizkaria

Síguenos en / Hemen gaitzuzu:

http://www.berrioplano.es/

**Colabora / Laguntzailea:** Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

**Tirada / Ale kopurua:** 3.200
**D.L. / L.G:** NA- 1432-2006.
Difusión gratuita
Doako banaketa

**Fotografía / Argazkia:** Jon Urriza
**Realiza / Errealizatzailea:** Heda Comunicación
**Traducción / Itzulpena:** Kike Díez de Ulzurrun

**Consejo de redacción/ Erredakzio Kontseilua:** Félix Remírez, Raúl Bator, Donald Navas, Francisco Esquíroz, Víctor Gil, Fco. Javier Vallez, Unai Calvo

**Edita / Argitaratzailea:** Ayuntamiento de Berrioplano Berriobeitiko Udala






## Eguberriak Zendean | Navidad en la Cendea

## 2023ko GABONAK

**Urtarrilaren 8ra arte**
**ERAKUSKETA: ARTIKAKO III. ARGAZKIA RALLYA**
**Non:** María de Maeztu Kultur Etxea **Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta asteburuan, Kultur Etxean jarduerarik badago.

**Abenduak 16, larunbata**
**MARI DOMINGI AÑEZKAR**
**17:30etik** "Mari Domingiren ipuina" karpan / txokolate-jana / Mari Domingiren jaitsiera mendian beheiti / gutun bilketa eliz gorapean / barbakoa herrikoia

**MARI DOMINGI ARTIKA**
**Ordua:** 17:45 Gizarte Etxetik. Bukatzeko, otamena Txolinenea elkartean

**Abenduak 17, igandea**
**HAUR PILOTA**
Eguberriko VI. Eskupilota txapelketa, Berriobeiti **Non:** pilotalekua
**10:30:** Izen-ematea (9-14 urte) eta pilota eskolaren erakustaldia (6-8 urte)
**11:00:** txapelketa

**EGUBERRIKO JAIALDIA**
**Ordua:** 12:00 **Non:** María de Maeztu Kultur Etxea. **Parte-hartzaileak:** Berriobeitiko Ametza Abesbatza, Elortzibarko Abesbatza eta Orkoiengo San Miguel Abesbatza

**OLENTZERORENDAKO GUTUNAK AITZOAINEN**
Irteera elkartetik **Ordua:** 16:00. Bukatzean, txokolate-jana elkartean

**ANIMAZIO-ZINEMA ARTIKAN**
"Se armó el Belén" **Ordua:** 17:00 **Non:** María Domínguez Gizarte Etxea Sarrera: doan

**OLENTZERO LARRAGETA**
**Ordua:** 18:30 Ongietorria Olentzerori eta ibilbidea karrikaz karrika. Txokolatea eta ardo beroa pilotalekuan

**Abenduaren 18tik 21era**
**ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO ENTZUNALDIAK**
**Non:** María de Maeztu Kultur Etxea **Sarrera:** doan
**Argibideak:** aldizkari honetako 15. or.

**Abenduak 23, larunbata**
**GABON KANTAK ARTIKAN**
**Ordua:** 13:00.
**Parte-hartzaileak:** Orreaga Musika Eskola

**OLENTZERO AITZOAINEN**
**Ordua:** 18:00. Ibilbidea pilotalekuraino. Opariak eta txokolate-jana

**OLENTZERO BERRIOGOITI**
**Ordua:** 18:00.

**Abenduak 24**
**ARTIKAKO IX. SAN SILBESTREA NEREAREN ALDE**
**Ordua:** 11:00.
Argibideak 16. or.

**OLENTZERO ARTIKA (herria)**
**Ordua:** 18:00. Opilak, gaztainak eta ardoa

**Abenduak 26, asteartea**
**HAUR TAILERRAK ARTIKAN**
**Lego kanpamentuak:** 9:00etatik 14:00etara, 6 urtetik gora María Domínguez zentroa
**Tailerrak**
**Bi txanda:** 16:30etik 17:30era eta 17:45etik 18:45era.
María Domínguez Zentroan 4-8 urteko haurrentzat / Artigune III gelan 9-12 urteko haurrentzat
**Prezioa:** jarduera doan
**Argibideak:** 948 38 37 93

**Abenduak 27, asteazkena**
**HAUR TAILERRAK ARTIKAN**
**Lego kanpamentuak:** idem abenduak 26

**IPUIN-KONTALARIA ARTIKA**
16:30: gaztelaniaz / 17:45: euskaraz **Non:** María Domínguez Gizarte Etxea

**GAZTE ZINEMA**
"Ejército de los ladrones" (12 urtetik gora) **Non:** Berriobeitiko erabilera anitzeko gelan
**Sarrera:** doan

**Abenduak 28, osteguna**
**HAUR TAILERRAK ARTIKAN**
**Lego kanpamentuak:** idem abenduak 26

**HAUR IKUSKIZUNA**
"Sensaciones" Hodei Magoa
**Non:** María de Maeztu Kultur Etxea **Ordua:** 18:00 **Sarrera:** 5 € aurrez (www.berrioplano.es eta antzokiko leihatila), 6 € leihatilan ikuskizun egunean

**Abenduak 29, ostirala**
**HAUR TAILERRAK ARTIKAN**
**Lego kanpalekuak:** idem abenduak 26
**Tailerrak**
idem abenduak 26

**BERRIOBEITIKO GAITEROAK**
Gabon kantak **Ordua:** 18:00
**Non:** Artika (herria eta Artika Berri)

**Abenduak 30, larunbata**
**HAUR ZIRKUA**
Panelo Circus Show **Ordua:** 12:00 **Non:** Artika Berriko plaza nagusia (eguraldi txarra egiten badu, María Domínguez Zentroan)

**ARTIKAKO ERRALDOI KONPARTSAREN IRTEERA**
**Ordua:** 17:00 **Non:** Artikako karrikak. Txokolate-jana Konpartsaren etxabean (18:30

**BERRIOBEITIKO GAITEROAK**
Gabon kantak **Ordua:** 18:00
**Non:** Aitzoain, Berriobeiti eta Berriogoiti

**Urtarrilak 2, asteartea**
**HAUR TAILERRAK ARTIKAN**
**Lego kanpalekuak:** idem abenduak 26
**Tailerrak**
Idem abenduak 26

**Urtarrilak 3, asteazkena**
**HAUR TAILERRAK ARTIKAN**
**Lego kanpalekuak:** idem abenduak 26
**Tailerrak**
idem abenduak 26

**BERRIOBEITIKO GAITEROAK**
Gabon kantak **Ordua:** 18:00
**Non:** Añezkar, Larrageta, Lotza, Ballaraian, Elkarte eta Oteitza

**Urtarrilak 4, osteguna**
**ERREGE MAGOEN PAJEAK ARTIKAN**
**Ordua:** 18:00

**Urtarrilak 5, ostirala**
**HAUR TAILERRAK ARTIKAN**
**Lego kanpalekuak:** idem abenduak 26

**ERREGE MAGOEN KABALGATA BERRIOBEITIN**
**Ordua:** 18:30 **Irteera:** Plazaola industrialdea
Erregeen etorrera eta gurtza elizan. Ibilbidea organ Berriobeitin eta Berriogoitin barna, eta opari banaketa pilotalekuan (17:30etik aitzina ekarriak).
Nafar produktuz beteriko saski bat zozketatuko da, GERNA elkartearekin elkarlanean

## NAVIDAD 2023

**Hasta el 8 de enero**
**EXPOSICIÓN III RALLY FOTOGRÁFICO DE ARTICA**
**Lugar:** Casa de Cultura María de Maeztu **Horario:** de lunes a viernes, de 16:00 a 21:00 y en fin de semana si hay actividad en la Casa de Cultura

**16 de diciembre, sábado**
**MARI DOMINGI AÑEZCAR**
**Desde las 17:30** "El cuento de Mari Domingi" en la carpa / chocolatada / bajada desde el monte de Mari Domingi / recogida de cartas en el atrio de la iglesia / barbacoa popular

**MARI DOMINGI ARTICA**
**Hora:** 17:45 desde la Plaza del Centro Cívico. Para terminar, lunch en la sociedad Txolinenea

**17 de diciembre, domingo**
**PELOTA INFANTIL**
VI Campeonato de Navidad de pelota mano de Berrioplano **Lugar:** Frontón
**10:30:** Inscripciones (9-14 años) y Exhibición Escuela de Pelota (6-8 años)
**11:00:** Campeonato

**FESTIVAL DE NAVIDAD**
**Hora:** 12:00 **Lugar:** Casa de Cultura María de Maeztu
**Participan:** Coral Ametza Quejigo de Berrioplano, Coro del Valle de Elorz y la Coral San Miguel de Orkoien

**CARTAS PARA OLENTZERO EN AIZOÁIN**
Salida desde la sociedad
**Hora:** 16:00. Al finalizar, chocolatada en la sociedad

**CINE DE ANIMACIÓN EN ARTICA**
"Se armó el Belén" **Hora:** 17:00 **Lugar:** Centro Cívico María Domínguez **Entrada:** gratuita

**OLENTZERO LARRAGUETA**
**Hora:** 18:30 Bienvenida a Olentzero y recorrido por las calles. Chocolatada y vino caliente en el frontón

**18 al 21 de diciembre**
**AUDICIONES DE LA ESCUELA DE MÚSICA**
**Lugar:** Casa de Cultura María de Maeztu **Entrada:** gratuita
**Más información:** pag 15 de esta revista

**23 de diciembre, sábado**
**VILLANCICOS EN ARTICA**
**Hora:** 13:00 a cargo de la Escuela de Música Orreaga

**OLENTZERO EN AIZOÁIN**
**Hora:** 18:00. Recorrido hasta el frontón. Regalos y chocolatada

**OLENTZERO BERRIOSUSO**
**Hora:** 18:00.

**24 de diciembre**
**IX SAN SILVESTRE ARTICA POR NEREA**
**Hora:** 11:00. Más info pag 16

**OLENTZERO ARTICA (pueblo)**
**Hora:** 18:00. Habrá pastas, castañas y vino

**26 de diciembre, martes**
**TALLERES INFANTILES EN ARTIKA**
**Campamentos de Lego:** de 9:00 a 14:00 a partir de 6 años Centro María Domínguez
**Talleres**
**Dos tandas:** de 16:30 a 17:30 y de 17:45 a 18:45.
En el Centro María Domínguez para niños/as de 4 a 8 años / En la sala Artigune III para niños/as de 9 a 12 años
**Precio:** Actividad gratuita
**Información:** 948 38 37 93

**27 de diciembre, miércoles**
**TALLERES INFANTILES EN ARTICA**
**Campamentos de Lego:** idem 26 de diciembre

**CUENTACUENTOS ARTICA**
**16:30:** en castellano / **17:45:** en euskera **Lugar:** Centro Cívico María Domínguez

**CINE JOVEN**
"Ejército de los ladrones" (a partir de 12 años) **Lugar:** Sala multiusos de Berrioplano
**Entrada:** gratuita

**28 de diciembre, jueves**
**TALLERES INFANTILES EN ARTICA**
**Campamentos de Lego:** idem 26 de diciembre

**ESPECTÁCULO INFANTIL**
"Sensaciones" Mago Hodei
**Lugar:** Casa de Cultura María de Maeztu **Hora:** 18:00
**Entrada:** 5 € anticipada (www.berrioplano.es y taquilla del teatro), 6 € en taquilla el día del espectáculo

**29 de diciembre, viernes**
**TALLERES INFANTILES EN ARTIKA**
**Campamentos de Lego:** idem 26 de diciembre
**Talleres**
idem 26 de diciembre

**GAITEROS DE BERRIOPLANO**
Villancicos **Hora:** 18:00 **Lugar:** Artica (Pueblo y Artica Nuevo)

**30 de diciembre, sábado**
**CIRCO INFANTIL**
Panelo Circus Show **Hora:** 12:00 **Lugar:** plaza central de Nuevo Artica (con mal tiempo, en el Centro María Domínguez)

**SALIDA DE LA COMPARSA DE GIGANTES DE ARTICA**
**Hora:** 17:00 **Lugar:** calles de Artica. Chocolatada en la bajera de la Comparsa (18:30)

**GAITEROS DE BERRIOPLANO**
Villancicos **Hora:** 18:00 **Lugar:** Aizoáin, Berrioplano y Berriosuso

**2 de enero, martes**
**TALLERES INFANTILES EN ARTICA**
**Campamentos de Lego:** idem 26 de diciembre
**Talleres**
idem 26 de diciembre

**3 de enero, miércoles**
**TALLERES INFANTILES EN ARTIKA**
**Campamentos de Lego:** idem 26 de diciembre
**Talleres**
idem 26 de diciembre

**GAITEROS DE BERRIOPLANO**
Villancicos **Hora:** 18:00 **Lugar:** Añézcar, Larragueta, Loza, Ballariáin, Elcarte y Oteiza

**4 de enero, jueves**
**PAJES DE LOS REYES MAGOS EN ARTICA**
**Hora:** 18:00

**5 de enero, viernes**
**TALLERES INFANTILES EN ARTIKA**
**Campamentos de Lego:** idem 26 de diciembre

**CABALGATA DE LOS REYES MAGOS EN BERRIOPLANO**
**Hora:** 18:30 **Salida:** polígono Plazaola. Llegada de los Reyes y bienvenida y adoración en la iglesia. Recorrido en carroza por Berrioplano y Berriosuso, y entrega de regalos en el frontón (depositados a partir de las 17:30).
Sorteo de una cesta con productos navarros en colaboración con la asociación GERNA

# BIBLIOTECA ABIERTA
# LIBURUTEGIA ZABALIK

## NOVEDADES BIBLIOTECA
## LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK




- ZUBIZARRETA, Patxi
  **Zerria** Erein, 2021
- EPHRON, Nora
  **No me gusta mi cuello**
  Libros del Asteroide, 2023
- SOLA SAEZ, Irene
  **Te di ojos y miraste las tinieblas**
  Anagrama, 2023
- IORDANIDU, Maria
  **Como pájaros atolondrados**
  El Acantilado, 2023
- HERGÉ
  **Uharte beltza. Tintinen Abenturak**
  Trilita Ediciones,2022
- GARCÍA ROJO, Patricia
  ÁLVAREZ GARCÍA, Cinthia
  **El verano en el que llegaron los lobos**
  Ediciones SM
- JEANS BLUE
  **La última melodía de chopin** Editorial Planeta, 2023

**LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIA abenduaren 26tik urtarrilaren 5era / HORARIO DE LA BIBLIOTECA del 26 de diciembre al 5 de enero:** 8:30-14:30

## BIBLIOTECA A DOMICILIO
## ETXEZ ETXEKO LIBURUTEGIA

### PARA PERSONAS CON MOVILIDAD REDUCIDA

Personas residentes en las poblaciones de Berrioplano, con carné de usuario de las Bibliotecas Públicas de Navarra y movilidad reducida acreditada.

**Solicitudes**
bibliarc@navarra.es y en el 948 38 26 22
(de 15:00 a 21:00. En verano de 9:00 a 2:30)

### MUGIKORTASUN URRIKO JENDEARENTZAT

Berriobeitiko herrietan bizi direnentzat, Nafarroako Liburutegi Publikoetako erabiltzaile txartela badute eta mugikortasun urria ziurtatua badute.

**Eskariak**
bibliarc@navarra.es eta 948 38 26 22
(15:00 - 21:00. Uda, 9:00 - 2:30)

## BOOKCROSSING
## bookcrossing.com

### INTERCAMBIO DE LIBROS EN BERRIOPLANO Y ARTICA

Centro Cívico María Domínguez de Artica (en horario de actividad).
Edificio Multiusos de Berrioplano (de 10:00 a 22:00)

### LIBURU TRUKEA BERRIOBEITIN ETA ARTIKAN

María Domínguez Gizarte Etxean (jarduerak daudenean bakarrik dago zabalik).
Berriobeitiko Erabilera anitzeko (10:00etatik 22:00etara)

# CIFRAS Y LETRAS
# ZENBAKIAK ETA HIZKIAK

## ZENBAKIAK / CIFRAS

### EGUBERRIAK ZENDEAN — NAVIDAD EN LA CENDEA



**16** Abendua Larunbata | Diciembre Sábado

- AÑEZKAR / AÑÉZCAR — MARI DOMINGI — 17:30
- ARTIKA (herria) /ARTICA (pueblo) — MARI DOMINGI — 17:45

**17** Abendua Igandea | Diciembre Domingo

- AITZOAIN / AIZOÁIN — OLENTZEROREN DAKO GUTUNAK / CARTAS PARA OLENTZERO — 16:00
- LARRAGETA / LARRAGUETA — OLENTZERO — 18:30

**23** Abendua Larunbata | Diciembre Sábado

- AITZOAIN / AIZOÁIN — OLENTZERO — 18:00
- BERRIOGOITI / BERRIOSUSO — OLENTZERO — 18:00

**24** Abendua Igandea | Diciembre Domingo

- ARTIkA (herria) / ARTICA (pueblo) — OLENTZERO — 18:00

**5** Urtarrila Ostirala | Enero Viernes

- BERRIOBEITI / BERRIOPLANO — ERREGE MAGOEN KABALGATA / CABALGATA DE LOS REYES MAGOS — 16:00

## LETRAS / HIZKIAK

**"Baztarreko":** leño grande que se ponía a uno o a los dos lados del fogón. "Leño sobre el que se apoyaban las leñas más pequeñas y que se solía mojar para que durara más". Del euskera *bazterreko*: del lateral o del orillo.

**"Patxarra":** aguardiente usual, sin azúcar. "Los agricultores tomaban una copa de patxarra antes de ir a la pieza". Del euskera *pattar*: aguardiente u otro licor fuerte

**Fuente:** *El euskera en el habla cotidiana de la Cendea de Berrioplano.*

**"Baztarreko":** Beheko suaren alde batean edo bietan paratzen den enbor handia. "Egur horren gainean egur txikiagoak paratzen ziren, eta bustitzen zen gehiago iraun zezan" Euskaratik: bazterreko

**"Patxarra":** Pattarra, azukrerik gabea. "Nekazariek kopa bat patxarra hartzen zuten alorrera joan baino lehen". Euskaratik: pattarra.

**Iturria:** *Euskara Berriobeiti Zendeako eguneroko hizkeran.*

# OSOKO BILKUREN LABURPENAK
# RESUMEN DE PLENOS

(Osoko bilkuretako aktak eta saioen grabazioak www.berrioplano.es webean daude eskuragarri)

(Las actas de lo plenos y las grabaciones de las sesiones están disponibles en www.berrioplano.es)



## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2023-10-03)

**Hitzarmena Antsoaingo Udalarekin "Euskara Merkataritzara" programaren udalen arteko kontratazioa egiteko.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, osoko bilkurak hitzarmena onetsi zuen, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, AAB, VPA eta PSN) eta 2 abstentzio (PP).

**Udala "PRTR" administrazio publikoen parte-hartzea dinamizatzeko eta laguntza teknikorako zerbitzuari atxiki zaio.** Udalbatza aho batez atxiki zaio zerbitzuari. Suspertze, Eraldakuntza eta Erresilientzia plana (PRTR) Espainiako Gobernuak onetsi zuen 2021ean. Horren arabera, inbertsioak eta berrikuntzak eginen dira produktibitatea eta hazkunde potentziala handitzeko, eta gizarte berde, digital eta inklusiborantz jotzeko, gizarte eta lurralde aldetik kohesionatuagoa, eta genero-arrakalarik gabea.

**Gurutze Gorriari laguntza eman zaio Marokoko eta Libiako kaltetuentzat.** Osoko bilkurak 2.500 euroko laguntza eman dio Gurutze Gorriari, lurrikarak Marokon eta uholdeek Libian eragindako kaltetuen beharrei erantzuteko.

**Adierazpen instituzionala Marokoko lurrikararen karira.** Osoko bilkurak adierazpen instituzionala onetsi zuen aho batez Marokoko herriari elkartasuna eta babesa agertzeko, joan den irailaeko lurrikarak eragindako hondamendi izugarriaren aurrean.

**Adierazpen instituzionala Libiako uholdeen karira.** Osoko bilkurak adierazpen instituzionala onetsi zuen aho batez Libiako herriari elkartasuna eta babesa agertzeko, joan den irailaeko uholdeek eragindako hondamendi ikaragarriaren aurrean.

## OSOKO BILKURA ARRUNTA (2023-11-07)

Osoko bilkura hasi baino lehen Udalbatzak minutu bateko isilunea egin zuen Gazako gatazkaren biktimen alde eta Urbasako gertakariaren karira.

**Artika Kirol Hiriko taberna-jatetxearen eta askaldegiaren zerbitzuaren kontratua esleitu da.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, osoko bilkurak zerbitzua Yolanda Sarango Tapiari lau urterako esleitzea erabaki zuen, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, VPA eta PSN) eta 2 abstentzio (AAB).

**Artikako Kultur Etxeko taberna-kafetegiaren zerbitzuaren kontratua esleitu da.** Udalbatzak zerbitzua Yolanda Sarango Tapiari lau urterako esleitzea erabaki zuen, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, VPA eta PSN) eta 2 abstentzio (AAB).

**Hasiera batez onetsirik 2024ko zerga-tasak, tasak eta prezio publikoak.** Osoko bilkurak onetsirik, zerga-tasak, tasak eta prezio publikoak oro har % 3,5 igoko dira datorren urtean eta, horrekin batera, prezio publiko ezberdinak ezartzea erroldatuentzat eta ez erroldatuentzat Artikako eta Berriobeitiko igerilekuetan. Halaber, PPk proposatutako aldaketa sartu da, adin tarte bakoitzean 25 euroan jaisteko erroldatuen kuota Artikako eta Berriobeitiko igerilekuetarako, udalerriko bizilagunek prezio hobeak izan ditzaten. 9 boto izan ziren alde (EH Bildu, Plazaola, PP, VPA eta PSN) eta 4 kontra (AAB eta UPN).

**Hasiera batez onetsirik udal baratze komunitario eta ekologikoen ordenantzaren aldaketa.** Aldaketa hasiera batez onetsi zen, 7 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Plazaola, VPA eta PSN), 4 kontra (UPN eta AAB), eta 2 abstentzio (PP).

**Dirulaguntzak ematea irabazi-asmorik gabeko eta parte-hartze sozialerako erakundeei % 0,2ko prebentzio, sustapen eta gizarte lankidetzarako.** Gaia aho batez onetsi zen.

**Atxikimendua A-25eko adierazpen instituzionalarekin.** Udalbatzak aho batez onetsi zuen bat egitea Nafarroako hainbat toki entitatek batera egindako adierazpenarekin. Adierazpena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak jarri du Nafarroako udalen eskura. Hona hemen: Udalaren arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta testuingurutan; Udalaren konpromisoa, erakunde publikoa garen aldetik, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko lanean jarraitzeko, zaurgarritasun eta indarkeria egoerak sortzen dituztelako, administrazio publikoen eta gizarte zibilaren konpromisoa sustatuta; udalaren elkartasuna agertzea egunero erasoak pairatu eta indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume eta neskatoei; eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari atxikimenduaren berri ematea 2023ko azaroaren 9a baino lehen.

## TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS / TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

### Subida general del 3,5% de las tasas y precios públicos para 2024

El Ayuntamiento ha aprobado una subida general de un 3,5% de las tasas y precios públicos para 2024. Asimismo, se han introducido varias modificaciones en los precios de las piscinas de Artica y Berrioplano. La primera es que se diferenciará entre personas empadronadas y personas no empadronadas para que el vecindario del municipio se beneficie de mejores precios. Además, se incorpora un nuevo tramo de edad de 16 a 18 años. A las personas empadronadas se les rebajará 25 euros en sus cuotas en todos los tramos de edad. También están previstos bonos de verano y bonos de mes, y habrá precios diferentes para las entradas de los días laborables y de los fines de semana y festivos. Por último, tal y como ocurre en las piscinas de Berrioplano, en las piscinas de Artica podrán abonarse solamente a las piscinas o solicitar un abono únicamente para el gimnasio y no como hasta ahora, que era necesario abonarse a los dos servicios para disfrutar de las instalaciones.

### Udalak % 3,5 igo ditu orokorrean 2024ko tasak eta prezio publikoak

Udalak % 3,5 igo ditu orokorrean 2024ko tasak eta prezio publikoak. Halaber, hainbat aldaketa egin zaizkie Artikako eta Berriobeitiko igerilekuen prezioei. Lehenbizikoa da erroldatuen eta ez erroldatuen artean ezberdinduko dela, udalerriko bizilagunek prezio hobeak izan ditzaten. Gainera, 16-18 urteko adin-tarte berri bat sartu da. Erroldatuei 25 euro jaitsiko zaizkie kuota adin tarte guztietan. Era berean, udako bonuak eta hileko bonuak daude aurreikusita, eta prezio ezberdinak izanen dira lanegunetako eta asteburuko nahiz jaiegunetako sarreretan. Azkenean, Berriobeitiko igerilekuetan gertatzen den bezala, Artikako igerilekuetan aukera izanen da igerilekuetan bakarrik bazkidetzeko edota gimnasiorako abonua eskatzeko. Orain arte, ordea, bi zerbitzuetan bazkidetu beharra zegoen instalazioak erabiltzeko.

**Servicio de Atención a la ciudadanía (9:00 - 14:00)**
**Ayuntamiento: 948 30 31 29. De lunes a viernes.**
**Artigune II: Leonor de Aquitania, 26 (Artica). Martes y miércoles.**

**Herritarrendako Arreta Zerbitzua (9:00 - 14:00)**
**Udala: 948 303129. Astelehenetik ostiralera.**
**Artigune II: Leonor Akitaniakoa, 26 (Artika). Asteartea eta asteazkena.**

## PLENO ORDINARIO (3-10-2023)

**Convenio con el Ayuntamiento de Ansoáin para la contratación intermunicipal del programa "Euskara Merkataritzara-Euskera al comercio".** En una sesión a la que asistió toda la Corporación el Pleno aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, AAB, VPA y PSN y 2 abstenciones de PP este convenio.

**Adhesión al Servicio de asistencia técnica y dinamización de participación de administraciones públicas en "PRTR".** La Corporación municipal aprobó por unanimidad adherirse a este servicio. El Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR), aprobado en 2021 por el Gobierno español, supone la articulación de una serie de inversiones y reformas dirigidas a aumentar la productividad y el crecimiento potencial, avanzando hacia una sociedad verde, digital, inclusiva, con mayor cohesión social y territorial, y sin brechas de género.

**Concesión de ayuda humanitaria a Cruz Roja para Marruecos y Libia.** El Pleno aprobó por unanimidad conceder 2.500 euros a Cruz Roja en concepto de ayuda humanitaria para atender las necesidades de las personas damnificadas por el terremoto de Marruecos y las inundaciones de Libia.

**Declaración institucional por el terremoto de Marruecos.** El Pleno aprobó por unanimidad una Declaración institucional para mostrar su solidaridad y apoyo al pueblo de Marruecos frente a la terrible catástrofe producida por el terremoto del pasado septiembre.

**Declaración institucional por las inundaciones de Libia.** El Pleno aprobó por unanimidad una Declaración institucional para mostrar su solidaridad y apoyo al pueblo de Libia frente a la terrible catástrofe producida por las inundaciones del pasado septiembre.

## PLENO ORDINARIO (7-11-2023)

Antes de iniciar la sesión plenaria, la Corporación municipal guardó un minuto de silencio por las víctimas del conflicto de Gaza y por el suceso acontecido en el balcón de Pilatos.

**Adjudicación del contrato de servicio de bar-restaurante y merendero de la Ciudad Deportiva de Artica.** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal, el Pleno aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, VPA y PSN y 2 abstenciones de AAB adjudicar a Yolanda Sarango Tapia este servicio por un periodo de cuatro años.

**Adjudicación del contrato de servicio del bar-cafetería de la Casa de Cultura (Artica).** La Corporación municipal aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, UPN, PP, VPA y PSN y 2 abstenciones de AAB adjudicar a Yolanda Sarango Tapia este servicio por un periodo de cuatro años.

**Aprobación inicial de tipos impositivos, tasas y precios públicos para 2024.** El Pleno aprobó por 9 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, PP, VPA y PSN y 4 en contra de AAB y UPN subir un 3,5% los tipos impositivos, tasas y precios públicos en términos generales, establecer precios públicos diferentes para las personas empadronadas y no empadronadas en las piscinas de Artica y en las de Berrioplano e incluir la modificación propuesta por el PP para rebajar en 25 euros en cada tramo de edades la cuota de las personas empadronadas en las piscinas de Artica y Berrioplano con el fin de beneficiar al vecindario del municipio.

**Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza de huertas comunitarias y ecológicas municipales.** La modificación fue aprobada inicialmente por 7 votos a favor de EH Bildu, Plazaola, VPA y PSN, 4 en contra de UPN y AAB y 2 abstenciones de PP.

**Concesión de subvenciones a entidades de participación social sin ánimo de lucro que desarrollen proyectos de prevención, promoción y cooperación social del 0,2%.** Este punto fue aprobado por unanimidad.

**Adhesión a la Declaración institucional del 25-N.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad adherirse a la declaración conjunta de varias entidades locales de Navarra puesta a disposición de los ayuntamientos de Navarra a través de la Federación Navarra de Municipios y Concejos; rechazar toda forma de violencia contra las mujeres en cualquier ámbito y contexto; manifestar el compromiso del Ayuntamiento como institución pública de continuar trabajando por la eliminación de todas las desigualdades que generan situaciones de vulnerabilidad y violencia contra las mujeres, promoviendo el compromiso tanto de las Administraciones Públicas como de la sociedad civil; manifestar la solidaridad del Ayuntamiento hacia las mujeres que han sido agredidas y con las mujeres y niñas que enfrentan cada día la violencia machista; y comunicar a la Federación Navarra de Municipios y Concejos esta adhesión antes del 9 de noviembre de 2023.

## LANKIDETZA / COOPERACIÓN

### 8.500 euro xede sozialeko proiektuak diruz laguntzeko

Udalak 8.500 €-ko balioa duen dirulaguntza banatuko du % 0,2ko prebentzio, sustapen eta lankidetza proiektuak garatzen dituzten parte-hartze sozialeko lau erakunderen artean. Honakoak dira, hain zuzen ere. **ADACEN garuneko kaltearen Nafarroako elkartea** (1.460,73 euro), **arreta defizita, hiperaktibitatea eta inpultsibitatea artatu eta aztertzeko Nafarroako elkartea** (1.676,52 euro), **Eunate Nafarroako entzumen desgaitasunaren elkartea** (1.684,82 euro), **Nafarroako gorren elkartea** (1.535,43 euro) eta **Elikagaien Bankua Fundazioa** (1.842,51 euro).




### 8.500 euros para ayudas a proyectos con fines sociales

El Ayuntamiento ha destinado subvenciones por un valor de 8.500 euros a cuatro entidades de participación social sin ánimo de lucro que desarrollan proyectos de prevención, promoción y cooperación del 0,2%. En concreto, se trata de la **Asociación de daño cerebral de Navarra ADACEN** (1.460,73 euros), la **Asociación navarra para el tratamiento y el estudio del déficit de atención, hiperactividad e impulsividad ADHI** (1.676,52 euros), la **Asociación de discapacidad auditiva de Navarra Eunate** (1.684,82 euros), la **Asociación de personas sordas de Navarra** (1.535,43 euros) y la **Fundación de Banco de Alimentos** (1.842,51 euros).

## OSTALARITZA / HOSTELERÍA

### Artikako Kultur Etxeko eta Kirol Hiriko taberna zerbitzuak esleitu dira

**Yolanda Sarangori** eman zaio María de Maeztu Kultur Etxeko taberna-kafetegi zerbitzuaren eta Artikako Kirol Hiriko taberna-jatetxearen eta askaldegiaren zerbitzuaren esleipena.
Kultur Etxeko taberna astelehenetik ostiralera egonen da zabalik, 9:30etik 21:00etara. Jaiegun, larunbat eta igandeetan, berriz, 9:30etik 22:00etara. Eskaintza barnean daude eguerdiko menuak, lanegunetan nahiz jaiegunetan, eta arrazio, ogitarteko eta plater konbinatuen karta ere bai.
Artikako Kirol Hiriko taberna-jatetxeari dagokionez, 9:30etik 21:00etara egonen da zabalik, egunero, hau da, asteko zazpi egunetan, baina ordutegia zabaldu daiteke, Udalak aurrez baimena emanda. Eguneko menu zerbitzua eskaintzen du, baita karta ere.



### Adjudicados los servicios de bar de la Casa de Cultura y de la C.D. Artica

**Yolanda Sarango** ha sido la persona adjudicataria del servicio de bar-cafetería de la Casa de Cultura María de Maeztu y del servicio de bar-restaurante y merendero de la Ciudad Deportiva de Artica.
El bar de la Casa de Cultura está abierto en horario de lunes a viernes, 9.30 a 21.00 y festivos, sábados y domingos, de 9.30 a 22.00. La oferta incluye menús de mediodía, tanto para días laborales como para festivos, y una carta de raciones, bocadillos y platos combinados.
En cuanto al bar-restaurante de la Ciudad Deportiva de Artica, su horario es de 9:30 a 21:00 todos los días de la semana, pero puede ser ampliado previa autorización del Ayuntamiento. Ofrece un servicio de menú diario y de carta.

## PREVENCIÓN / PREBENTZIOA




### Berrioplano se prepara para hacer frente al invierno

El municipio de Berrioplano ya tiene todo listo para afrontar las posibles nevadas y heladas del invierno. El Ayuntamiento ha activado el Plan de viabilidad invernal para prevenir, evitar y minimizar los efectos del clima. Para ello, contará con el mismo dispositivo del año pasado, esto es, dos carretillas para repartir sal por las aceras y despejar los accesos a las instalaciones de mayor tránsito (Casa de Cultura, instalaciones deportivas, comercios, establecimientos...) y tres equipos con esparcidor de sal y quitanieves (un tractor, una pala y un todoterreno) para despejar las carreteras. Además, se repartirán sacos de sal en los puntos habituales (Casa de Cultura de Artica, Ayuntamiento y porche del frontón de Berrioplano, frontón de Larragueta, iglesia de Loza e iglesia de Aizoáin).

### Berriobeiti prest neguari aurre egiteko

Berriobeitiko udalerriak den-dena du prest neguan izan daitezkeen elurte eta izotzei aurre egiteko. Udalak, izan ere, dagoeneko neguko plana jarri du abian, klimaren ondorioak prebenitzeko, saihesteko eta ahalik eta gehien murrizteko. Horretarako, iaz adina ibilgailu izanen ditu eskura, hau da, bi eskorga, gatza espaloietan barreiatzeko eta jenderik gehien biltzen den instalazioetarako sarbideak garbitzeko (Kultur Etxea, kirol instalazioak, dendak, establezimenduak, etab.) eta beste hiru ibilgailu gatza errepideetan botatzeko eta bertatik elurra kentzeko (traktore bat, pala bat eta lur orotako bat). Horrez gain, gatz zakuak ohiko lekuetan banatuko dira (Artikako Kultur Etxea, udaletxea, eta Berriobeitiko pilotalekuko portxea, Larragetako frontoia, Lotzako eliza eta Aitzoaingo eliza).

## UDAL PARKEA / PARQUE MUNICIPAL

### Kamioi berria zerbitzu anitzetarako

Udalak kamioi bat erosi du 38.400 euroan (+ BEZa) zerbitzu anitzetako langileendako. Kabina hutsa duen kamioia da lan tresnak eramateko. Kamioia, zehazki, Bilbotruck S.L.ri erosi zaio.

### Un nuevo camión para Servicios Múltiples

El Ayuntamiento ha adquirido un camión para el personal de Servicios Múltiples por un importe de 38.400 euros + IVA. Se trata de un camión con cabina vacía que se utilizará para transportar los útiles de trabajo. La adjudicataria ha sido Bilbotruck S.L.



# Berritasunak udal baratzeen erabileran

Udalak hainbat aldaketa egin ditu udal baratze komunitario eta ekologikoak arautzen dituen ordenantzan, baratzeak esleitu eta erabiltzeari dagokionez. Horrela, gure udalerrian gutxienez urtean 9 hilabetez bizi diren Berriobeitiko Udalerriko erroldatuek izanen dute udal baratzeen erabiltzaile izateko eskubidea. Titular bakoitza gehienez baratze baten titularra izanen da eta familia-unitate bakoitzak gehienez eskaera bakarra eginen du.
Eskaerak gehiago badira eskaintzen den baratze kopurua baino, banaketa zozketaz eginen da. Baratzerik jaso ez dutenak erreserba-zerrendan sartuko dira. Lehen esleipen horretatik aurrera eta, behin erreserba-zerrenda agorturik, udalak izena emateko beste epealdi bat zabalduko du. Norbaitek jarraitu nahi ez badu, baratzea udalaren eskura utzi beharko du, eskabidearen bitartez. Lursailaren aprobetxamendua eta/edo erabilera gehienez 7 urterako emanen da. Behin epea iraganik, titularrak jarraitu nahi badu, beste esleipen zozketa batean sartu beharko du.
Baratzea hutsik badago, erreserba-zerrendaren arabera esleituko da, aprobetxamendu epearen barnean.

## Esleipen-hartzaileen betebeharrak

- Erabiltzaileak urte osoan mantendu beharko du lursail landua, gutxienez ongarri berdearekin. Makinak erabiltzen ahalko ditu (motokultoreak eta motoaitzurrak) baratzea prestatzeko, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, astelehenetik ostiralera; eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara (debekatua dago makinak erabiltzea larunbat arratsaldeetan, igande eta jaiegunetan).
- Esleipen-hartzaileek 66,06 euroko kanona ordaindu beharko dute 2023an eta, Nafarroako KPIren arabera eguneratuko da urtero.
- Esleipen-hartzaileek laguntza eman beharko dute Udalak eskatzen dituen auzolanetan, espazio komunak mantentzeko eta zaintzeko, salbu, auzolana egiten denean, komunikazioko edo konposta kudeatzeko kargua betetzen ari direnek. Halaber, Udalak urtean behin antolatzen duen bilerara joan beharko dute, denei dagozkien gaiez aritzeko, idatziz justifikatzen dutenean izan ezik.
- Esleipen-hartzaileen artean, Udalak hiru lagun izendatuko ditu zozketa bidez konpostaje komunitariorako eremuaz arduratzeko eta, beste hiru lagun, auzolanak koordinatzeko. Karguak urtero txandakatuko dira.

# Novedades en el uso de las huertas municipales

El Ayuntamiento ha introducido varias modificaciones en la ordenanza reguladora para la concesión y uso de huertas comunitarias y ecológicas municipales. Tendrán derecho a ser usuario/a de las huertas municipales las personas empadronadas en el Ayuntamiento de Berrioplano que residan al menos durante 9 meses en el municipio. Cada persona titular sólo podrá serlo de una huerta y cada unidad familiar podrá realizar una única solicitud.
En caso de que las solicitudes superen las huertas ofertadas, la concesión se realizará por sorteo. Las personas que no hayan sido agraciadas pasarán a una lista de reserva. A partir de esa primera adjudicación y, una vez agotada la lista de reserva, el consistorio abrirá un nuevo periodo de inscripción. En el caso de que una persona no quiera continuar deberá dejar la huerta a disposición del Ayuntamiento, comunicándolo mediante instancia.
El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por un periodo máximo de 7 años. Tras ese periodo, si desea continuar, podrá entrar en un nuevo sorteo de adjudicación.
Si hubiera huertas desocupadas, se adjudicarán conforme al listado de reserva durante el plazo de aprovechamiento.

## Obligaciones de las personas adjudicatarias

- La persona usuaria deberá mantener la parcela cultivada durante todo el año, al menos con abono verde. Podrá hacer uso de maquinaria (motocultores y mulillas mecánicas) para preparar la huerta en horario de 10:00 a 13:00 y de 16:00 a 19:00, de lunes a viernes; y el sábado, de 10:00 a 13:00 (queda prohibido su uso los sábados por la tarde, domingos y festivos).
- El Ayuntamiento exigirá a las personas adjudicatarias el pago de un canon de 66,06 euros anuales para el año 2024, que será actualizado anualmente según el IPC de Navarra.
- Las personas adjudicatarias están obligadas a colaborar en las labores en auzolan que se soliciten desde el Ayuntamiento para el mantenimiento y conservación de los espacios comunes, excepto las personas que, en el momento del auzolan, tengan asignado un cargo de responsabilidad de comunicación o de gestión del compost. También deberán asistir a la reunión anual convocada por el Ayuntamiento, en la que se tratarán temas comunes, salvo justificación por escrito.
- El Ayuntamiento designará por sorteo, de entre las personas adjudicatarias, a las tres responsables de la gestión de la zona de compostaje comunitario y a tres personas coordinadoras de auzolanes. Serán cargos rotatorios anuales.

BERRIOBEITIKO UDALEKO ESKUPILOTA ESKOLA | ESCUELA DE PELOTA MANO DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIOPLANO




**Berriobeitiko pilotalekuan 25 neska-mutil elkartzen dira astearte eta ostegunero pilotan jokatzen ikasteko, lagunen artean ongi pasatzeko eta herriko bizitzari eragiteko**

# Pilotak baturik

**El frontón de Berrioplano se convierte todos los martes y jueves en el punto de encuentro de 25 chavales que, más allá de aprender a jugar a pelota, pasan un buen rato entre amigos y dan vida al pueblo**

# Unidos por la cancha

Orain dela zazpi urtetik hona, Berriobeitiko Udalak eskupilota ikastaroa eskaintzen die Zendeako haurrei eskolaz kanpoko jardueren artean. Aurten, inoiz baino lagun gehiagok eman dute izena. Guztira, 24 mutil eta neska bat ari dira eskupilotan astean bi orduz, **Sergio Larraia** entrenatzailearen begiradapean. “Nes-

Desde hace siete años, el Ayuntamiento de Berrioplano ofrece a los niños y las niñas de la Cendea el curso de pelota a mano como actividad extraescolar. Este año se han batido todos los récords en el número de inscripciones. Un total de 25 chavales, 24 chicos y 1 chica, juegan a pelota a mano

kak poliki-poliki animatzen ari dira; aurten bat dugu, eta iaz, neska batek ere eman zuen izena, baina oraindik ere nekez hurbiltzen dira".

Hiru talde sortu dira, adinaren, esperientziaren eta mailen arabera, eta talde bakoitzean zortzi-bederatzi lagun ari dira. "15 minutu lan egiten dute aurreko taldearekin eta, gainerako 45 minutuan, beren kasa. Zenbaitetan, bikoteka jokatzen dute; beste batzuetan, berriz, banaka, eta konbinazioak ere egiten dituzte. Pilotalekua sei frontoi txikitan banatzen dugu".

Giro onean ari dira, pilotalekuan sartu bezain laster nabari den bezala. Bi pilotari paretaren kontra pilotakadaka ari diren bitartean, beste talde bat hizketa bizian ari da, haietako batek lehen pilotakada noiz emanen duen zain. Bertan ez da 22 tantora jokatzen eta eskuetan ere ez dira takoak paratzen, pilotak beratxak baitira, helburua ikastea eta ederki pasatzea baita. "Hasten direnean, beti esku ona erabiltzen dute. Paretara baztertzea egiten zaie nekosoen, eta ohikoan erabiltzen ez duten eskua erabiltzea, ezkerra, alegia".

**Harremana kantxaz haratago**

Pilotan aritzea oso gauza onuragarria da. Sergiok ederki daki hori. 6-7 urte zituela hasi zen jokatzen eta 22 bete arte jarraitu zuen Oberena pilota klubean. Duela zazpi urte Berriobeitiko udalaren pilota eskola hasi zen entrenatzen eta badirudi luze joko duela. "Oso pozik nago. Barañainen ere entrenatzen dut eta oso gustukoa dut. Pilotak onura asko dakartza aritzen denarentzat. Lehenik, onura gorputzarentzat, jakina; mugimena eta koordinazioa hobetzen laguntzen duelako eta, gainera, harremanak hobetzen dituelako. Arras kirol osasuntsua da. Aurkariarekin kontakturik ez dagoenez, pilotarien arteko harremana arras ona da. Kantxan sortzen den adiskidetasunak pilotalekutik kanpora ere jarraitzen du eta hori ona da herriko giroa biziberritzeko. Familia aunitzek beren esker ona agertzen dute herrian berean kirol bat jokatzeko aukera dagoelako, hau da, oso praktikoa zaie, ez baitute seme-alaben bila joan behar. Handiak etxera joan daitezke bere kasa".

**Julen eta Oier, beteranoenak**

Julen Monleón hasieratik ari da Berriobeitiko Udalaren pilota eskolan. Txikitatik izan du pilotak lekua haren bizitzan –amatxik telebistaz ikusi ohi ditu partidak–, eta horregatik hasi zen. Behin batean, etxean pilota bat aurkitu eta bere kasa hasi zen; handik urtebetera, eskolan eman zuen izena. "Zoragarria zait, asko mugitzen baitzara. Pim, pam, alde batetik bestera. Nire pilotaririk gogokoena: Altuna III".

Aurten, Julen Berriozarko pilota klubean sartu da eta Nafarroako Federazioaren partidetan jokatzen du Oier Migelezekin batera. 14 urte dituzte eta kadeteetan ari dira, hau da, txikienen taldean. "Batzuetan, partidaren bat irabazten dugu, baina zaila da. Pilota gogorragoa eta biziagoa baita, eta parti-

dos horas por semana bajo la atenta mirada de **Sergio Larraia**, su entrenador. "Las chicas se van animando poco a poco, este año hay una y el año pasado también se apuntó una chica, pero todavía cuesta".

Se han creado tres grupos divididos por edades, experiencia y niveles, y en cada grupo participan entre ocho y nueve chavales. "Trabajan 15 minutos con el grupo anterior y los 45 minutos restantes, solos. Algunas veces juegan por parejas, otras veces de manera individual y también se hacen combinaciones. Para que todos puedan participar dividimos el frontón en seis mini frontones".

El buen ambiente que se respira es palpable nada más entrar en el frontón. Mientras una pareja da pelotazos a la pared, otro grupo de chavales habla animadamente y espera a que uno de ellos ponga en movimiento la pelota. Aquí no se juega a 22 tantos ni se necesitan tacos para las manos, las pelotas son blandas porque el objetivo es divertirse y aprender. "Cuando empiezan siempre utilizan la mano buena. Lo que más les cuesta es arrimarse a la pared y usar la mano que no utilizan habitualmente, la izquierda".

**Pilota kirol aproposa da mugimena eta koordinazioa hobetzeko, bai eta jendearen arteko harremanak hobetzeko ere. Oso kirol osasuntsua da**

**La pelota ayuda a mejorar la movilidad y la coordinación y favorece las relaciones personales. Es un deporte muy sano**

**Relación más allá de la cancha**

Los beneficios de jugar a pelota son numerosos. Sergio lo sabe muy bien. Empezó a jugar con 6 o 7 años en Berriozar y siguió hasta los 22, pasando por el club de pelota de Oberena. Hace siete años empezó a entrenar en la Escuela municipal de pelota de Berrioplano y parece que va para largo. "Estoy muy contento. También entreno en Barañáin y me gusta mucho. Es un deporte que conlleva muchos beneficios para quien lo practica. Además del físico, que es evidente, porque ayuda a mejorar la movilidad o la coordinación, favorece las relaciones personales. Es un deporte muy sano. Como no hay contacto con el adversario, la relación entre pelotaris es muy buena. La amistad que surge en la cancha se traslada al exterior y da vida al pueblo. Muchas familias agradecen que haya alguna disciplina deportiva en el propio pueblo porque a nivel práctico les viene muy bien, no tienen que ir a recogerles. Los mayores pueden volver a casa solos".

**Julen y Oier, los veteranos**

Julen Monleón lleva en la Escuela municipal de pelota de Berrioplano desde el principio. Se apuntó porque es un deporte que ha estado presente en su vida desde pequeño -su abuela suele ver los partidos en la televisión. Un día encontró una pelota en casa y decidió probar por su cuenta. Un año después, se inscribió en la Escuela. "Me encanta porque te mueves mucho. Pim, pam, de un lado a otro. Mi pelotari favorito: Altuna III".

## BERRIOBEITIKO UDALEKO ESKUPILOTA ESKOLA | ESCUELA DE PELOTA MANO DEL AYUNTAMIENTO DE BERRIOPLANO





dak 22 tantora baitira".
Anaia Berriozarko pilota klubean ikustean animatu zen Oier. Aitarekin hasi zen jokatzen, eta gero, Berriozarko pilota eskolan sartu zen. "Gure entrenatzailea Iker Mariezkurrena da, Jonen anaia, hau da, nire pilotaririk gogokoenaren anaia. Gauzak zuzentzen dizkigu eta aholkuak eman nola mugitu behar dugun jakiteko. Ez du zerikusirik infantil eta benjaminetako partidekin. Nabari da maila gorago dagoela".
Ilusioz eta gogoz beterik ari dira, kantxara jokatzera eta primeran pasatzera ateratzen direlako. Garaipenak laster iritsiko dira, ziur.

**Eguberriko eskupilota txapelketa**
Duela sei urtetik hona, Berriobeitiko eskupilota txapelketa eguberriko agendako jarduera finkoetako bat da. Aukera bikaina da gure herrian hain sustraitua dagoen kirol hori sustatzeko. Alde batetik, partida ofizial bat jokatzen da Nafarroako Federazioko bi kluben artean, eta bestetik, bestelako partidak antolatzen dira eskolako kideak eta nahi duten haur guztiak aritzeko eta dibertitzeko. Gainera, partida horiek ofizialak ez badira ere, markagailuak pizten dira eta gerriko gorriak eta urdinak janzten dituzte, eta, zenbaitetan, baita kamiseta eta galtza zuriak ere.

Este año Julen se ha apuntado al club de pelota de Berriozar y compite en los partidos de la Federación navarra de pelota con su compañero Oier Migelez. Tienen 14 años y están en la categoría de cadetes, en el grupo de los más pequeños. "A veces ganamos algún partido, pero es difícil. La pelota es más dura y más viva y los partidos son a 22 tantos".
A Oier le picó el gusanillo cuando vio a su hermano en el club de pelota de Berriozar. Empezó a jugar con su padre y luego dio el salto al club de pelota de Berriozar. "Nuestro entrenador es Iker Mariezkurrena, el hermano de Jon, mi pelotari preferido. Nos corrige y da consejos para saber cómo movernos. No tiene nada que ver con los partidos de infantil y benjamín. Se nota que el nivel sube".
Derrochan ilusión y ganas porque salen a la cancha a jugar y divertirse. Seguro que los triunfos llegan pronto.

**Campeonato de Navidad de pelota a mano**
Desde hace seis años, una de las actividades fijas de la agenda navideña es el Campeonato de pelota infantil de Berrioplano. Una oportunidad para promover un deporte tan arraigado en nuestra tierra. Además del partido oficial en el que compiten dos clubes de la Federación navarra de pelota, se organizan partidos para que los integrantes de la Escuela y los niños y niñas que quieran, aunque no sean de la escuela, puedan practicar y divertirse un rato. Además, aunque no se trate de partidos oficiales, los marcadores se encienden y la vestimenta suele incluir fajas rojas y azules y, en algunos casos, camiseta y pantalón blancos.

### Hitzordua haur pilotarekin abenduaren 17an Berriobeitiko pilotalekuan

Abenduaren 17an, Eguberriko VI. Pilota txapelketa jokatuko da 9 urtetik 14ra bitarteko neska-mutilentzat Berriobeitiko pilotalekuan. Aurreko urteetan bezala, txapelketa hasi aurretik, Pilota Eskolako 6 urtetik 8ra bitarteko ikasleek erakustaldia eginen dute. Lehiaren ondotik, trofeoak banatu eta, ohi denez, ondotik otamena eginen da.



### Cita navideña con la pelota infantil el 17 de diciembre en el frontón de Berrioplano

El 17 de diciembre se celebrará el VI Campeonato de Navidad de pelota para chicos y chicas de entre 9 y 14 años en el frontón de Berrioplano a las 11:00. Al igual que en años anteriores, antes de iniciar el torneo, el público podrá disfrutar de una exhibición del alumnado de entre 6 y 8 años de la Escuela de Pelota. Tras la competición, se llevará a cabo la entrega de trofeos y el tradicional lunch.

## 25 N / A 25

# Servicio gratuito de información y asesoramiento psicológico y jurídico

**El Ayuntamiento de Berrioplano tiene un convenio con el Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Berriozar para ofrecer un servicio gratuito de información y asesoramiento psicológico y jurídico**



Solicita CITA en:
Área de Igualdad del Ayuntamiento de Berriozar
948/ 30 16 31
igualdad@berriozar.es

Eskatu HITZORDUA:
Berriozarko Udalaren Berdintasun Alorra
948/ 30 16 31
igualdad@berriozar.es

# Informazio eta aholkularitza psikologikorako eta juridikorako zerbitzua doan

**Berriobeitiko Udalak hitzarmena egina du Berriozarko Udalaren Berdintasun zerbitzuarekin Informazio eta aholkularitza psikologikorako eta juridikorako zerbitzua doan eskaintzeko**

La asesoría psicológica se presta en caso de duelos, separaciones y adaptaciones a cambios en determinas etapas de la vida (paro, cambio de trabajo...); en caso de crisis vitales; a personas que hayan sufrido o sufren situaciones de violencia de género; a personas que estén en riesgo de exclusión debido a una situación económica, etnia, migración, orientación sexual...; y con especial atención a mujeres que sufren o han sufrido discriminación, malos tratos físicos y/o psíquicos, agresiones sexuales, acoso sexual, moobing...

La asesoría jurídica abarca distintas materias como Derecho de Familia (Separación, Divorcio, Parejas de Hecho...); asesoramiento sobre Capitulaciones Matrimoniales y Régimen Económico Matrimonial, Liquidación Sociedad Conyugal; sobre testamentos y herencias; sobre extranjería (permisos de residencia, órdenes de expulsión...); sobre asuntos penales (malos tratos, agresiones, abusos sexuales, amenazas...) y problemas no derivados del ámbito familiar; sobre Derecho civil (arrendamientos, reclamaciones de cantidad ...) y sobre el Beneficio de Justicia Gratuita.

Aholkularitza psikologikoa kausotan ematen da: dolu kasuak, banatzeak; aldaketetara egokitzeko bizitzaren etapa jakin batzuetan (langabezia, lan aldaketa...); bizitza-krisiak agertzen direnean; genero-indarkeria pairatu edo pairatzen duen jendeari; egoera ekonomikoa, etnia, migrazioa, sexu-joera... dela eta, bazterketan erortzeko arriskuan dagoen jendeari; eta bereziki, bazterkeria, tratu txar fisikoak eta/edo psikikoak, moobing-a, sexu-erasoak sexu-jazarpena... pairatu edo pairatzen dituzten emakumeei.

Aholkularitza juridikoan hainbat arlo daude sarturik, hala nola familia zuzenbidea (banantzea, dibortzioa, izatezko bikoteak...); ezkontza kapitulazioei buruzko aholkuak eta ezkontza barneko araubide ekonomikoa; ezkontideen elkartearen likidazioa; testamentuak eta herentziak; atzerritartasun kontuak (bizitzeko baimenak, kanporatze aginduak...); kontu penalak (tratu txarrak, erasoak, sexu-abusuak, mehatxuak...) eta familia-ingurunetik ez datozen arazoak; zuzenbide zibila (errentamenduak, diru kopuruen erreklamazioak...), eta doako justiziaren onurak.

## A 25 / 25 N

### 15 gazte aritu dira defentsa pertsonaleko tailerrean

### 15 jóvenes participaron en el taller de defensa personal



A-25aren inguruko jarduerarik arrakastatsuenetako bat defentsa pertsonaleko tailerra izan da, Nafarroako Kirol Institutuak antolatua, Berriobeitiko Udalarekin elkarlanean. Azaroaren 25ean bertan eman zen Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean. Bertaratu ziren 15 lagunek defentsa pertsonalerako taktika eta baliabide batzuei buruzko prestakuntza jaso zuten, oso egokia kaleko erasoei aurre egiteko.
Eguerdiko 12:00etan, kale bilkura egin zen Artika Berriko plaza nagusian. Gero, arratsaldean, Artikako Kultur Etxean "Ama-das" film dokumentala eman zen, Marga Gutiérrez nafar zinemagileak egina.

Una de las actividades del 25 N que más éxito ha tenido ha sido el taller de defensa personal organizado por el Instituto Navarro de Deporte, en colaboración con el Ayuntamiento de Berrioplano, que se impartió el 25 de noviembre en el Edificio Multiusos de Berrioplano. Las 15 asistentes recibieron formación sobre algunas tácticas y recursos de defensa personal con los que hacer frente a una agresión en la calle.
A las 12:00 tuvo lugar una concentración en la plaza central de Nuevo Artica. Ya por la tarde, la cita fue en la Casa de Cultura (Artica) donde se proyectó la película documental "Ama-das", de la directora navarra Marga Gutiérrez.

euskara@berriobeiti.eus
948 30 31 29



## APOYO A LAS FAMILIAS / FAMILIENDAKO LAGUNTZA

# La exposición de juegos y juguetes, todo un éxito

# Jolas eta jostailuei buruzko erakusketa, arrakastatsua oso

**En noviembre se ha celebrado el ciclo "Familia+euskera", una iniciativa para ayudar a las familias en el acompañamiento a sus niños/as en el proceso de aprendizaje de euskera**

**Azaroan "Familia+euskara" zikloa burutu da. Familiei laguntza eman zaie seme-alabak nola lagundu jakiteko, euskaraz mintzatzen ikasteko prozesuan**

Al igual que el año pasado, la exposición de juegos y juguetes en euskera que estuvo abierta en la Casa de Cultura de Maeztu del 28 al 30 de noviembre fue la actividad del ciclo "Familia+euskara" que más público congregó. Durante tres días, más de 150 personas visitaron la muestra y pudieron conocer una amplia colección de juegos y juguetes en euskera que hay en la actualidad en el mercado, una información muy valiosa de cara a Navidad.

Además de la exposición, los juegos familiares en euskera y la chocolatada del 3 de noviembre en Berriosuso también tuvieron muy buena acogida.

En el ciclo se impartieron también dos interesantes talleres, uno dirigido a las familias con peques de menos de dos años que tienen su primer contacto con el euskera, y otro para asesorar a las familias que ya han matriculado a sus hijas e hijos en el modelo D, especialmente para quienes no saben euskera.









Iaz bezala, euskarazko jolas eta jostailuei buruzko erakusketak bildu du jenderik gehien "Familia+euskara" ziklo barnean antolatutako ekitaldien artean. Erakusketa azaroaren 28tik 30era egon da ikusgai Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean. Hiru egunez, 150tik gora lagunek ikusi dute erakusketa, merkatuan gaur egun diren euskarazko jolas eta jostailuen sorta zabalaz osatua. Informazio hori, zer esanik ez, oso baliosa da Eguberriei begira.

Erakusketaz gain, oso harrera ona ere izan dute familiendako euskal jolasek eta azaroaren 3an Berriogoitin egindako txokolate-janak.

Zikloan, halaber, bi tailer interesgarri eman dira: haietako bat euskararekin lehen harremana izan duten bi urtetik beherako haurrak dituzten familiendako, eta bestea, berriz, seme-alabak dagoeneko D ereduan matrikulatu dituzten familiei aholkularitza emateko; bereziki, euskaraz ez dakiten gurasoei.

## DIGITALIZAZIOA / DIGITALIZACIÓN

# Auzolana, Adimen Artifizialak euskara ikas dezan

# Auzolan para que la Inteligencia Artificial aprenda euskera

Siri, Alexa, Cortana eta gisako makinak gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez edo japonieraz mintzatzen dira. Baina euskaraz ere mintza daitezen, milaka ahots jaso behar dira euskaraz. Eta euskal ahotsak jasotzeko modurik errazena da herritarren ahotsak grabatzea (20 urtetik gora). Zuk zeuk egin dezakezu GAITU plataforman. Era askotariko ahotsak behar dira, mota eta genero guztietakoak. Zurea ere bai. Beraz, animatu eta har ezazu parte auzolan erraldoi horretan. **Grabatu zure ahotsa! Oso erraza baita!**

Máquinas como Siri, Alexa y Cortana hablan castellano, inglés, francés o japonés. Para que también lo hagan en euskera, es necesaria una gran base de datos, para que de ahí "aprendan" euskera. Y para ello es necesario recoger miles de voces en euskera, de personas mayores de 20 años, de todos los géneros y tipos, lo cual puede hacerse en la plataforma GAITU. Te animamos a participar en este auzolan gigante. **¡Graba tu voz!, ¡es muy fácil!**

## EDUCACIÓN / HEZKUNTZA

# Cafés-tertulia para abordar la matriculación en euskera

+ INFO / INFO+
634 51 53 84
euskara@berriobeiti.eus

# Kafe-tertuliak euskarazko matrikulazioa jorratzeko

Ahora que se va acercando el periodo de prematriculación escolar, el Servicio de Euskera ha organizado en enero dos café-tertulias, dirigidos a las familias con hijas e hijos que van a comenzar el ciclo escolar y que se están planteando la posibilidad de matricularles en escuelas donde se estudia en euskera. Estas actividades también pueden interesar
a aquellas familias que acaban de escolarizar a sus hijas/os en el modelo D y tengan alguna duda sobre el proceso de aprendizaje. El primer café-tertulia se celebrará en **Artica**, en el Centro cívico María Domínguez, el día **15 de enero**, lunes, de la mano de la profesora de la UPNA **Paula Kasares**, doctora en sociolingüística que ha investigado especialmente la socialización lingüística de los niños y las niñas. Es gratuito, pero hay que **inscribirse previamente** en el teléfono **012 (948 012 012)**, **del 9 al 12 de enero**. Habrá servicio de guardería si se pide previamente.
El segundo será el miércoles **17 de enero** en la **Escuela Infantil de Berriosuso** de la mano del **Técnico municipal de Euskera** del Ayuntamiento de Berrioplano, también experto en sociolingüística. Es gratuito, pero hay que inscribirse en el teléfono **012 (948 012 012)**, **del 11 al 16 de enero**.
En las dos actividades habrá servicio de guardería si se demanda en la inscripción.

Aurrematrikulazio garaia hurbiltzen ari den honetan, Euskara zerbitzuak bi kafe-tertulia antolatu ditu urtarrilerako, eskolan hasiko diren seme-alabak dituzten familiei zuzenduak; haurrak euskaraz ikasten den eskoletan matrikulatzeko aukera aztertzen ari diren familiendako, hain zuzen ere. Dena den, jarduera interesgarriak ere izan daitezke haurrak D ereduan eskolatu berri dituzten gurasoendako, ikaskuntza-prozesuari buruzko zalantzak argitzeko, halakorik badute.
Lehen kafe-tertulia **Artika**ko María Domínguez Gizarte Etxean eginen da **urtarrilaren 15ean**, astelehena, **Paula Kasares** NUPeko irakaslearen eskutik. Doktorea da soziolinguistikan eta haurren hizkuntza-sozializazioa ikertu du bereziki. Doakoa da, baina **aurrez izena eman behar da 012 (948 012 012)** telefonoan **urtarrilaren 9tik 12ra**. Haurtzaindegi zerbitzua izanen da, aurrez eskatzen bada.
Bigarrena **urtarrilaren 17an**, asteazkena, izanen da Berriogoitiko Haur Eskolan, eta **Berriobeitiko Udaleko euskara teknikaria** mintzatuko da; soziolinguistikan ere aditua da. Doakoa da, baina aurrez izena eman behar da **012 (948 012 012)** telefonoan, **urtarrilaren 11tik 16ra**.
Bi jardueretan haurtzaindegi zerbitzua izanen da, izena ematean eskatzen bada.

## LEHIAKETA / CONCURSO

# “Euskara Berriobeiti zendean”

# “El euskara en la Cendea de Berrioplano”

Garai honetan ohi denez, Euskara Zerbitzuak “Euskara Berriobeiti Zendean” izeneko lehiaketa antolatu du, galderen bidez euskara Berriobeitiko udalerriarekin lotzeko. Erantzun gehien asmatzen dituenak 150 euroko oparibonu bat irabaziko du Iruñeko Karrikiri dendan trukatzeko. Erantzun zuzenen artean berdinketarik bada, zozketa eginen da. Gehiago jakiteko, bisitatu udal weba (QR).

Como viene siendo habitual en estas fechas, el Servicio de Euskera ha organizado el concurso “El euskara en la Cendea de Berrioplano”, un concurso con preguntas que relacionan el euskera con el municipio de Berrioplano. La persona que acierte más respuestas ganará un bono-regalo de 150 euros para canjear en la tienda Karrikiri de Pamplona. En caso de empate en el número de respuestas acertadas, se realizaría un sorteo. Para saber más, visita la web municipal (QR).

## CONCEJOS / KONTZEJUAK



### Fiesta de quintos

Los quintos del 48/49/50 de Aizoáin, Berriosuso, Berrioplano, Loza y Oteiza volvieron a celebrar su tradicional comida de fin de año. La reunión tuvo lugar el pasado 11 de noviembre en el restaurante Trujal de Pamplona. En la foto, comenzando por la derecha: Jesús Izquieta, Paco Jáuregui, Pili Iriarte, Rosa Mari Viguria, José Mari Pascal, Alicia Amezgaray, Inés Esquiroz, Rufina Babace, Aurea Aldabe y Manuel Pascal.

### Kinto besta

Ohi dutenez, Aitzoain, Berriogoiti, Berriobeiti, Lotza eta Oteitzako kintoek urte bukaerako bazkaria egin dute. Aurten, joan den azaroaren 11n Iruñeko Trujal jatetxean. Argazkian, eskuinetik hasita: Jesús Izquieta, Paco Jáuregui, Pili Iriarte, Rosa Mari Viguria, José Mari Pascal, Alicia Amezgaray, Inés Esquiroz, Rufina Babace, Aurea Aldabe eta Manuel Pascal.

# ¡Vive la Navidad en la Cendea!

Además de las tradicionales citas con Olentzero y Reyes, Berrioplano ha organizado para las semanas navideñas una amplia oferta de actividades infantiles (talleres, espectáculos, cuentacuentos, cine...) como para toda la familia. Consulta la agenda de la página 2 para no perderte nada

# Bizi ezazu Eguberria Zendean!

Ohi denez, Olentzero eta Erregeen etorreraz gain, Berriobeitik haurrendako jarduera sorta zabal-zabala antolatu du Eguberrietako asteetarako (tailerrak, ikuskizunak, ipuin-kontalariak, zinema...), bai eta etxeko guztiendako ere. Ikusi 2. orrialdeko agenda eta ekitaldi guztien berri izanen duzu





## Cine infantil
**Domingo 17 de diciembre**

"Se armó el Belén"
Tarde de cine de animación para los y las más txikis a las 17:00 en el **Centro Cívico María Domínguez** .
Entrada gratuita.
Organiza: Concejo de Artica.

## Haur zinema
**Abenduak 17, igandea**

"Se armó el Belén"
Animazio-filma arratsaldean haurrentzat 17:00etan, **María Domínguez Gizarte Etxean**
Sarrera doan
Antolatzailea: Artikako Kontzejua

## Campamentos de Lego
**26 al 29 de diciembre y del 2 al 5 de enero**

Actividad de mañana
En el Centro Cívico María Domínguez de 9:00 a 14:00 para niñas/os a partir de 6 años
Actividad gratuita
Organiza: Concejo de Artica

## Lego kanpamentuak
**Abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era**

Goizeko jarduera
María Domínguez Gizarte Etxean, 9:00etatik 14:00etara 6 urtetik gorako haurrentzat
Jarduera doan
Antolatzailea: Artikako Kontzejua

## Talleres infantiles
**26 y 29 de diciembre y 2 y 3 de enero**

Actividad de tarde
Talleres para niños/as de 4 a 8 años en el Centro Cívico María Domínguez y para niños/as de 9 a 12 años en la sala Artigune III
Dos tandas, de 16:30 a 17:30, y de 17:45 a 18:45
Actividad gratuita
Organiza: Concejo de Artica

## Haur tailerrak
**Abenduak 26 eta 29, eta urtarrilak 2 eta 3**

Arratsaldeko jarduera
4-8 urteko haurrendako tailerrak María Domínguez Gizarte Etxean, eta 9-12 urtekoentzat, Artigune III gelan
Bi txanda, 16:30etik 17:30era, eta 17:45etik 18:45era
Jarduera doan
Antolatzailea: Artikako Kontzejua

## Gaiteros de Berrioplano

Villancicos
**Viernes 29 diciembre** a las 18:00 kalejira en Artica (pueblo y Artica Nuevo); **sábado 30 de diciembre** a las 18:00 en Aizoáin, Berrioplano y Berriosuso; y **miércoles 3 enero** en Añézcar, Larragueta, Loza, Ballariáin, Elcarte y Oteiza.
Organiza: Ayuntamiento de Berrioplano

## Berriobeitiko gaiteroak

Gabon kantak
Abenduak 29, ostirala, 18:00etan, kalejira Artikan (herria eta Artika Berri); **abenduak 30, larunbata** Aitzoain, Berriobeiti eta Berriogoitin; eta **urtarrilak 3, asteazkena**, Añezkar, Larrageta, Lotza, Ballariain, Elkarte eta Oteitzan
Antolatzailea: Berriobeitiko Udala



## Cine joven
**Miércoles 27 de diciembre**

"Ejército de los ladrones"
Tarde de cine y palomitas para los y las más jóvenes (a partir de 12 años) a las 19:00 en el **Edificio Multiusos de Berrioplano**. Entrada gratuita. Organiza: Ayuntamiento de Berrioplano.

## Gazte zinema
**Abenduak 27, asteazkena**

"Ejército de los ladrones"
Zinema eta krispeta arratsaldea gazteenendako (12 urtetik gora) 19:00etan **Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean**. Sarrera doan. Antolatzailea: Berriobeitiko Udala



## Magia infantil
**Jueves 28 de diciembre**

"Sensaciones"
Magia para público familiar a partir de 5 años con el **mago Hodei** en la **Casa de Cultura María de Maeztu**. Un show sobre los usos de la tecnología y su influencia social lleno de ritmo, humor, grandes ilusiones, propuestas novedosas y sorpresas. La entrada cuesta 5 euros en venta anticipada (web y taquilla) y 6 euros el mismo día del espectáculo.
Organiza: Ayuntamiento de Berrioplano.

## Haur magia
**Abenduak 28, osteguna**

"Sensaciones"
Familientzako magia (5 urtetik gora) **Hodei magoa**ren eskutik, **María de Maeztu Kultur Etxean**. Teknologien erabilerari eta gizartean duten eraginari buruzko show-a da, erritmoz, umorez, ilusio handiz, proposamen berriz eta ustekabez betea. Sarrerak 5 euro balio du aurrez erosiz (weba eta leihatila) eta 6 euro ikuskizun egunean berean.
Antolatzailea: Berriobeitiko Udala

## Circo
### Sábado 30 de diciembre

"Panelo Circus Show"
A las 12:00 en la plaza central de Nuevo Artica. En caso de mal tiempo, se trasladará al Centro Cívico María Domínguez.
Organiza el Concejo de Artica.

## Zirkua
### Abenduak 30, larunbata

"Panelo Circus Show"
12:00etan, Artika Berriko plaza nagusian. Eguraldi txarra egiten badu, María Domínguez Gizarte Etxean eginen da.
Antolatzailea: Artikako Kontzejua



## Comparsa de gigantes de Artica
### Sábado 30 de diciembre

Recorrido y chocolatada
Salida a las 17:00 por las calles de Artica.
Chocolatada en la bajera de la Comparsa a las 18:30.
Organizan: Comparsa y Concejo de Artica.

## Artikako erraldoi konpartsa
### Abenduak 30, larunbata

Ibilbidea eta txokolate-jana
Irteera 17:00etan Artikako karriketan barna. Txokolate-jana Konpartsaren etxabean, 18:30ean.
Antolatzaileak: Konpartsa eta Artikako Kontzejua



## Escuela de Música Audiciones

Lunes 18 de diciembre
- 17:00 Combos
- 17:30 Orquesta y banda de iniciación
- 18:00 Piano
- 18:30 Banda txiki y banda Orreaga
- 19:30 Coro adultos y ensemble

Martes 19 de diciembre:
- 16:30 Txistu
- 17:30 Orquesta de guitarras
- 18:30 Trombones y trompetas
- 19:30 Flautas y percusión

Miércoles 20 de diciembre:
- 17:00 Guitarra eléctrica
- 17:30 Saxofón y violín
- 19:00 Iniciación y coro infantil

Jueves 21 de diciembre:
- 17:30 Batería
- 17:30 Piano
- 18:30 Clarinete y arpa
- 18:30 Piano
- 19:30 Trikis y Hauspo-rock

## Musika Eskola Entzunaldiak

Abenduak 18, astelehena
- 17:00 Konboak
- 17:30 Orkestra eta hastapen banda
- 18:00 Pianoa
- 18:30 Banda txikia eta Orrega banda
- 19:30 Helduen abesbatza eta ensemblea

Abenduak 19, asteartea:
- 16:30 Txistua
- 17:30 Gitarra Orkestra
- 18:30 Tronboiak eta tronpetak
- 19:30 Txirulak eta perkusioa

Abenduak 20, asteazkena:
- 17:00 Gitarra elektrikoa
- 17:30 Saxofoia eta biolina
- 19:00 Hastapena eta haur abesbatza

Abenduak 21, osteguna:
- 17:30 Bateria
- 17:30 Pianoa
- 18:30 Klarinetea eta harpa
- 18:30 Pianoa
- 19:30 Trikitixa eta Hauspo-rocka

## ARGAZKI LEHIAKETA / CERTAMEN FOTOGRÁFICO



# Udal egutegiko argazkiak aukeratu dira

IV. Argazki Lehiaketako epaimahaiak 2024ko udal egutegia ilustratuko duten argazkiak aukeratu ditu. Aurkeztutako 21 argazkietatik, honakoak aukeratu dira: "Hacia Oriente" (**Manuel Matute Royo**); "Tarde otoñal" (**Paula Gómez Hoyos**); "La alfombra de Ezcaba" (**Alexandro Calvo Gómez**); "Atalaya" (**Diego García Ruiz**); "Salto al abismo" (**Iñigo Kepa Zamorano Nieto**); "Añezkar mara-mara" (**Ane Ciganda García**); "Otoño rojizo en Berrioplano" (**Mª Carmen Pacual Jiménez**); "Bonito atardecer en Berriosuso" (**Unai Lizaso Pascual**); "Girasoles adornando campos de Berrioplano" (**Alicia Amezgaray Legarrea**); "Belleza oculta" (**Blas Cantero de la Torre**); "Imparable energía de vida" (**Mª Elba Zabalza Arguiñano**); eta "Gotas de bruma" (**Mª Mar Romero González**).
Argazkietan Zendeako hainbat txoko ageri dira eta hainbat urtarotan atera dira. Irudiek, beraz, udal egutegiko hamabi hilabeteak ilustratuko dituzte. Egutegia laster banatuko da doan bizilagunen artean.

# Elegidas las fotos del calendario municipal

El jurado del IV Certamen de fotografía ya ha elegido las fotos que ilustrarán el calendario municipal 2024. De las 21 imágenes presentadas, las seleccionadas han sido "Hacia Oriente" (**Manuel Matute Royo**); "Tarde otoñal" (**Paula Gómez Hoyos**); "La alfombra de Ezcaba" (**Alexandro Calvo Gómez**); "Atalaya" (**Diego García Ruiz**); "Salto al abismo" (**Iñigo Kepa Zamorano Nieto**); "Añezkar mara-mara" (**Ane Ciganda García**); "Otoño rojizo en Berrioplano" (**Mª Carmen Pacual Jiménez**); "Bonito atardecer en Berriosuso" (**Unai Lizaso Pascual**); "Girasoles adornando campos de Berrioplano" (**Alicia Amezgaray Legarrea**); "Belleza oculta" (**Blas Cantero de la Torre**); "Imparable energía de vida" (**Mª Elba Zabalza Arguiñano**); y "Gotas de bruma" (**Mª Mar Romero González**).
Las fotos, que recogen distintos rincones de la Cendea y han sido tomadas en diferentes épocas del año, ilustrarán los doce meses del calendario municipal que se repartirá próximamente y de manera gratuita entre el vecindario.

## CONCILIACIÓN / KONTZILIAZIOA

### 47 plazas ocupadas en los campamentos urbanos de Navidad

Como todos los años, el Ayuntamiento ha organizazo para las semanas de vacaciones de Navidad campamentos urbanos infantiles. Hay 47 niños/as apuntados/as: 33 en los grupos de castellano y 14 en los de euskera.

### 47 leku hartu dira Eguberriko hiri kanpaldietan

Urtero bezala, Udalak haurrendako hiri kanpaldiak antolatu ditu Eguberriko oporraldirako. 47 haurrek eman dute izena: 33k, gaztelaniazko taldeetan, eta, 14k, euskarazkoetan.

## IX SAN SILVESTRE / IX. SAN SILBESTREA





# Ponte las zapatillas por Nerea

# Jantzi zapatilak Nerearen alde

El 24 de diciembre a las 11:00 en Nuevo Artika

Abenduaren 24an, 11:00etan, Artika Berrin

Artica acogerá el próximo 24 de diciembre por la mañana la IX San Silvestre "Ayudamos a Nerea", una carrera que servirá para recaudar fondos y seguir ayudando a la pequeña Nerea, una vecina de Artica que padece una enfermedad rara. Organizada por el **club Berritxaco**, la carrera comenzará a las 11:00.
Las inscripciones pueden hacerse en la web de **Rockthesport o** de manera **presencial** el día anterior de la prueba o el mismo día (hasta una hora antes). Más información en **Facebook** (San Silvestre de Artica) y en **Twitter** (SSArticaNerea).

Artikan IX. San Silbestrea jokatuko da abenduaren 24an, goizean, Nerearen alde. Nerea Artikako bizilaguna da eta gaixotasun arraro bat dauka. Bada, lasterketaren bidez, dirua bildu nahi da Nerea txikiari laguntza ematen jarraitzeko. **Berritxaco klubak** antolaturik, lasterketa 11:00etan hasiko da.
Izena **Rockthesport** bidez eman daiteke edo, bestela, **aurrez aurre** proba bezperan edo lasterketa egunean (ordubete lehenagora arte). Argibideak **Facebook**en (San Silvestre de Artica) eta **Twitter**ren (SSArticaNerea).

## UDAL IKASTAROAK / CURSOS MUNICIPALES

# Bada lekurik yoga, pilates eta zumban

Urte berriari ohitura osasungarrien bidez ekin nahi badiozu, emazu izena udalak bigarren lauhilekorako antolatu dituen kirol ikastaroetan. Kirol eta Gazteria Zerbitzuak, izan ere, yoga, pilates eta zumban diren leku libreak eskainiko ditu. Begiratu zer leku diren libre eta prezioak izena emateko epearen aurreko egunetan (epea: urtarrilak 24, 25 eta 26, erroldatuendako, eta urtarrilak 29, ez erroldatuendako), udal webean (**www.berrioplano.es**). Izena emateko, 012Infolokal telefonora deitu behar duzu (**948 012 012**). Lekuak izen ematearen hurrenkeraren arabera beteko dira.

# Plazas para yoga, pilates y zumba




Si quieres empezar el año con hábitos saludables, inscríbete en los cursos deportivos municipales del segundo cuatrimestre. El Servicio de Deporte y Juventud ofertará las plazas disponibles de yoga, pilates y zumba. Consulta plazas y precios los días previos al periodo de inscripción (los días 24, 25 y 26 de enero para las personas empadronadas y el 29 de enero para las no empadronadas) en la página web municipal (**www.berrioplano.es**). Las inscripciones se realizarán a través del teléfono 012Infolocal (**948 012 012**). Las plazas serán cubiertas por orden de inscripción.

## ATE ZABALEKO EGUNAK / JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS



# Zatoz pickleball-a zer den jakitera

# Ven a conocer el pickleball

Urtarrilaren 27an, Artikako pilotalekuan eta, otsailaren 3an, Berriobeitikoan

El 27 de enero en el frontón de Artica y el 3 de febrero en el de Berrioplano

Kirol eta Gazteria Zerbitzuak, Artikako Kontzejuarekin eta Nafarroako Pickleball Federazioarekin batera, ate zabaleko bi egun antolatu ditu pickleball-a zer den erakusteko, bai familientzat (8 urtetik gora), bai helduentzat. Padelaren antzeko kirola da, eta Estatu Batuetan sekulako arrakasta du.
Ordutegia 18:00etatik 19:30era bitartekoa izanen da. Lau pista paratuko dira eta antolatzaileek behar den materiala banatuko dute. Ez da izena eman beharrik. Zatoz eta jakizu zer den modako kirola!

El Servicio de Deporte y Juventud junto con el Concejo de Artica y la Federación Navarra de Pickleball han organizado dos Jornadas de puertas abiertas dirigidas a familias (8 años en adelante) y a personas adultas para dar a conocer el pickleball, una nueva modalidad deportiva parecida al pádel que está arrasando en EEUU.
El horario será de 18:00 a 19:30. Se colocarán cuatro pistas y la organización repartirá el material necesario. No hace falta inscribirse. ¡Anímate y conoce el deporte de moda!

## SALIDA JUVENIL / GAZTE ATERALDIA

# Tardeo en la bolera | Atsalde pasa bolatokian



El sábado 17 de febrero el grupo partirá a las 16:30 en villavesa desde Artigune 3

Otsailaren 17an, larunbatarekin, taldea billabesaz abiatuko da 16.30ean Artigune 3tik

La juventud de la Cendea **a partir de 12 años** podrá poner a prueba su puntería con los bolos en la salida que ha organizado el área de Juventud para el sábado 17 de febrero. A las 16:30 el grupo saldrá en villavesa desde el Espacio Joven de Artica (Artigune III) a una bolera de la Comarca para disfrutar de unas partidas, merienda incluida. La actividad cuesta **4 euros**. **Inscripción y pago hasta el 10 de febrero** en el **Espacio Joven de Artica** (Artigune III) en los horarios de apertura habituales.

Zendeako **12 urtetik** gorako gazteek boloetan duten punteria neurtzeko aukera izanen dute otsailaren 17an (larunbata), Gazteria Alorrak antolatutako ateraldian. Taldea 16:30ean abiatuko da billabesaz Artikako gaztegunetik (Artigune III) inguruko bolatoki batera, partidak jokatzeko, bai eta askaltzeko ere. Jarduerak **4 euro** balio du. **Otsailaren 10era arte eman behar da izena eta epe berbera** dago ordain-tzeko **Artikako Gazte Gunean** (Artigune III), zabalik dagoen ohiko ordutegietan.

## GAZTERIAREN EGUNA / DÍA DE LA JUVENTUD









# Gazteek badakite ederki pasatzen

# La juventud sabe divertirse



Gazteriaren Jaia joan den urriaren 28an ospatu zen Paintball-Navarrako instalazioetan, goizean, eta Berriobeitiko pilotalekuan, arratsaldean. Egun osoan arras giro ona izan zen, eta bideojokoek eta errealitate birtualeko gailuek erakarri zuten jenderik gehien; batez ere, EA Sport FC 24 jokoak (lehenago, FIFA). Izan ere, 32 gaztek beren futbol trebeziak erakutsi zituzten era birtualean eta, halaber, erronkei aurre egiteko darabiltzaten trikimailuak. Gazte aunitzek ere prezio apaleko afarian parte hartu zuten, guztiak ere indarberritzeko gogoz baitzebiltzan, arratsalde osoan buru-belarri aritu eta gero.



Las instalaciones de Paintball-Navarra por la mañana y el frontón de Berrioplano por la tarde fueron los escenarios el  pasado 28 de octubre de la Fiesta de la Juventud. El buen ambiente fue la nota predominante de una jornada marcada por la atracción de los videojuegos y dispositivos de realidad virtual. Una de las actividades con más tirón fue el Torneo EA Sport FC 24 (antiguo FIFA), en el que 32 jóvenes pudieron demostrar de manera virtual sus habilidades en el fútbol y sus trucos para afrontar los distintos desafíos. También la cena low cost tuvo una buena acogida entre las personas asistentes, que no dudaron en reponer fuerzas tras una intensa tarde de disfrute.

## ONDAREA / PATRIMONIO



# Larragetako iturria

XX. mendearen erditsura arte, ez zen txorrotako urik izan Larragetan. Bizilagunak herriko iturrira joaten ziren ur bila eta, lehortean, Putzu Berrira eta Saratsa errekara jotzen zuten garbitasuna egitera. 1958an, hurbileko iturburu bateko ura iritsi zen lehen aldiz herriko etxeetara, baina uda partean nahikoa ez zenez, iturriko ura ere erabiltzen zuten. 80ko hamarkadan, Iruñerriko Mankomunitateko hornidura-sarean sartu zen.
Berritua badago ere, iturria jatorriz Erdi Arokoa da, eta *Cerro de la Fuente* esaten zaion parajeari eman dio izena.

# La fuente de Larragueta

Hasta mediados del siglo XX no hubo agua corriente en Larragueta. Sus habitantes se abastecían de la fuente del pueblo y, en épocas de sequía, acudían al Pozo Nuevo y al río Sarasa a lavarse. En 1958 el agua procedente de un manantial próximo llegó por primera vez a las casas de la localidad, pero como en verano el suministro era insuficiente, se seguía utilizando el agua de la fuente. En los años 80 se integró en la red de abastecimiento de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona.
La fuente, aunque reformada, tiene origen medieval y da nombre al conocido como Cerro de la Fuente.



# CALLES DE LA CENDEA DE BERRIOPLANO
# BERRIOBEITI ZENDEAKO KALEAK

## PLAZA DEL CIERZO (BERRIOPLANO) / IPAR HAIZEAREN PLAZA (BERRIOBEITI)



La plaza del Cierzo está situada en el centro de la manzana compuesta por las calles Juan de Berrio, Ntra. Sra. de la Purificación, Heras y Andrelopa. Cuenta con un parque infantil, dos zonas verdes a ambos lados de la plaza y mobiliario urbano formado por una decena de bancos, papeleras y farolas.
Su denominación hace referencia al cierzo, un viento frío y seco del noroeste muy frecuente en el valle del Ebro (Ribera de Navarra, Aragón y La Rioja). Es un viento incómodo que se forma al coexistir una borrasca en el Mediterráneo con un anticiclón en el Cantábrico.
La palabra cierzo y sus múltiples variantes –*cencio, cercera, cercear, ciercera, cierzada, cercina, zarzagán, zaracear, zaracio, siero*...– viene de cercio, que deriva a su vez de la voz latina *cercius*, el dios-viento de la mitología romana –*skiron* para los griegos–. En otras zonas de España, el viento del noroeste es conocido como *regañón*, *gallego*, *mestral* o *mistral*.

Berriobeitiko Ipar Haizearen plaza Juan de Berrio, Purifikazioko Ama Birjina, Larrainak eta Andrelopa karrikek osatutako etxadiaren erdigunean kokatua dago. Bertan haur parke bat dago, eta bi berdegune plazaren alde banatan, bai eta hiri altzariak ere, hots, paperontziak, farolak eta hamar jarleku.
Karrika, beraz, ipar haizeari eskaini zaio. Ipar-mendebaldeko haize hotz, gorri eta idorra, eta maiz dabil Ebro ibarrean; Nafarroako Erriberan, Aragoin eta Errioxan, hain zuzen ere. Haize zakarra da, eta Mediterraneoan borraska eta Kantaurin antizikloia dagoenean sortzen da.
Ziertzo hitza eta haren aldaera ugariak (*cencio, cercera, cercear, ciercera, cierzada, cercina, zarzagán, zaracear, zaracio, siero*) cercio hitzetik datoz eta, hitz hori, aldi berean, latinezko *cercius* hitzetik, hau da, erromatarren mitologiako haizejainkoari deitzeko hitzetik (*skiron* greziarrentzat). Estatuko beste eskualde batzuetan, ipar-mendebaldeko haizeari bestela esaten zaio: *regañón, gallego, mestral* edo *mistral*.

Lotzako aintzirari buruzko argibideak:
http://balsadeloza.blogspot.com/
Más información sobre la balsa de Loza:
http://balsadeloza.blogspot.com/



## FAUNA

## LA GARCETA GRANDE

La garceta grande es una de las garzas más escasas en la balsa de Loza, aunque su presencia se hace más y más común y ya es un visitante regular. El resto de ardeidas presentes en Loza e Iza son la garza real, la imperial, la garceta común, la garcilla bueyera, y con rarísimas observaciones, el avetoro o la garcilla dimorfa.
La garceta grande es una especie en expansión desde hace varias décadas. Empezó siendo un raro invernante en la Península Ibérica, luego incrementó su presencia tanto en invierno como en primavera hasta constituir una población nidificante, no grande pero sí significativa y creciente. Esta población está particularmente consolidada en Andalucía y la costa mediterránea y de ahí se ha ido expandiendo a Navarra, donde ya se reproduce, y, sobre todo, se dispersa en invierno. Es en esa dispersión, o con la llegada de ejemplares de más al norte de los Pirineos, cuando se detecta en Loza, siendo los meses con más observaciones octubre-noviembre en otoño y febrero-abril en primavera.



Es una especie muy llamativa, y muy fácil de reconocer, porque es tan grande o más que la garza real, la mayor de las presentes en Loza, y es totalmente blanca, salvo el pico, amarillo u oscuro, según edades, y las patas. Su vuelo recuerda mucho al de la garza real, con la salvedad, como se ha dicho, de que es totalmente blanca y, por lo tanto, difícil de confundir.
La garceta grande no se ha reproducido hasta la fecha en Loza y no parece probable su reproducción en un futuro próximo.
Como otras ardeidas, se alimenta de materia animal, básicamente peces e insectos acuáticos, aunque también puede engullir pequeños mamíferos, insectos terrestres e incluso lagartijas y pájaros jóvenes.

**Texto:** Ignacio Deán (Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti) **Fotografía:** Gonzalo Deán

## KOARTZA ZURIA

Koartza zuria koartzarik urrienetakoa da Lotzako aintziran; dena den, gero eta ohikoagoa da eta, dagoenekoz, bisitari erregularra da. Lotzan eta Itzan dauden gainerako ardeidoak koartza hauskara eta koartzatxo itzaina dira eta, bakan agertzen bada ere, txori zezena ere bai.
Koartza zuria hedatzen ari da, duela hamarkada batzuetatik hona. Hasieran, ale bakanek ematen zuten negua Iberiar penintsulan; ondoren, gero eta gehiagotan hasi zen agertzen hala neguan nola udaberrian, harik eta populazio habiagilea osatu arte, ez handia, baina bai esanguratsua eta gero eta handiagoa. Populazio hori bereziki Andaluzian eta kostalde mediterraneoan dago finkatua, eta leku haietatik Nafarroara zabaltzen joan da. Orain, Nafarroan ugaltzen ari da eta, batez ere, neguan barreiatzen da. Hain zuzen ere, barreiatze horretan atzematen dugu Lotzan, edo Pirinioez iparraldeko aleak etortzen direnean. Behaketarik gehienak urria-azaroan izaten dira udazkenean, eta otsail-apirilean, udaberrian.
Arras espezie deigarria da, oso erraz ezagutzeko modukoa, koartza hauskara bezain handia edo handiagoa baita (koartzarik handiena Lotzakoen artean) eta erabat da zuria, mokoa izan ezik, horia edo iluna baita, adinen arabera, eta hankak izan ezik. Hegaldiak koartza hauskararena ekartzen digu gogora, baina, arestian esan dugun bezala, erabat da zuria; beraz, nekez nahasiko dugu.
Koartza zuria ez da oraingoz ugaldu Lotzan eta ez dirudi etorkizun hurbilean ugalduko denik.
Beste ardeido batzuek bezala, animaliak jaten ditu, nagusiki arrainak eta uretako intsektuak, baina ugaztun txikiak eta lurreko intsektuak ere, bai eta sugandilak eta txori gazteak ere.

**Testua:** Ignacio Deán (Gorosti Natur Zientzi Elkartea) **Argazkia:** Gonzalo Deán

## Erabili edukiontzi marroia

Egunero gure etxeetan sortzen ditugun hondakinen % 40 inguru gai organikoak dira; birziklatu daitezke eta, behin konpostaturik, lurrera itzuli. Iruñerrian, hondakin organikoak hiru modutan kudeatzen dira: edukiontzi marroia gai organikoa biltzeko; etxez etxeko konpostajea eta auzoko konpostajea. Berriobeitiko udalerrian, jende aunitzek aukeratu du modu horietako bat hondakinak kudeatzeko, eta Iruñerriko Mankomunitatea lanean ari da gero eta jende gehiagok ekin diezaion.
Gogoratu beharra dago gai organikoa edukiontzi marroian utzi behar dela (hondar berdeak, fruta, barazkiak, haragia, arraina, hondar kuzinatuak, esnekiak...), denetariko janari eta sukalde hondarrak, loreak, eta landare berdeak edo idorrak, azalak eta maskorrak, fruitu lehorrak eta kafe hondarrak. Ez da bota behar pixa-oihalik, higiene-produkturik, zigarro-puntarik, etxeko eskobatze-hondarrik... Eta ez da tamaina handiko hondakinik utzi behar edukiontzien ondoan (koltxoiak, altzariak...). Horrelako hondakinak Emausko Trapuketarien bidez kudeatzen baitira.
Hemendik gutxira, txartel elektronikoaren edo app mugikorraren bidezko irekiera ezarriko zaie hondakin organikoak biltzeko edukiontziei (edukiontzi marroia), bai eta "gainerakoa" biltzeko edukiontziei ere. Iruñerriko Mankomunitateak informazio-kanpaina abiaraziko du horren berri emateko.




## Utiliza el contenedor marrón

Aproximadamente el 40% de los residuos generados a diario en nuestros hogares es materia orgánica, que se puede reciclar y devolver a la tierra en forma de compost. En la Comarca de Pamplona hay tres formas de gestionar los residuos orgánicos: el contenedor marrón para la materia orgánica, el compostaje domiciliario y el compostaje comunitario.
En el municipio de Berrioplano son muchas las personas que han optado por una de estas tres fórmulas para gestionar sus residuos y la MCP está trabajando para que esta cifra siga aumentando.
Hay que recordar que en el contenedor marrón hay que depositar materia orgánica (restos verdes, fruta, verdura, carne, pescado, restos cocinados, productos lácteos...), todo tipo de biorresiduos alimenticios y de cocina, así como flores y plantas verdes o secas, cáscaras y conchas, frutos secos y posos de café. No hay que tirar pañales, artículos de higiene, colillas, restos de barrido doméstico... Tampoco hay que dejar voluminosos (colchones, muebles...) junto a los contenedores. Este tipo de residuos se gestionan a través de Traperos de Emaús.
Próximamente se implantará la apertura mediante tarjeta electrónica o app móvil tanto para los contenedores de residuos orgánicos (contenedor marrón) como para los de "resto". Desde la MCP se lanzará una campaña informativa.













# BERRIOBEITIKO IV. ARGAZKI LEHIAKETA

---

# IV CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA DE BERRIOPLANO

Lehiaketan aurkeztu eta 2024ko udal egutegia ilustratzen duten argazkiak

Fotografías presentadas al certamen que ilustran el calendario municipal 2024









